

Hedadura: 6,5 Km2

Biztanlegoa: 528 biztanle

Jaiak:

■ Herrikoak: Irailaren 29an, San Miguel.

■ San Kristobal basiliza: Uztailaren 10ean Erromeria.

Aizarnazabalgo udalerria Urolaren albo banatan zehar zabaltzen da. **Habitata** parrokiaren inguruan lekutzen da, bihurgunearen berezko balkoi batean dagoen kokagune estrategikoan. Kokaleku hau Ibañorrietatik zetorren antzinako bidegurutze bati lotzen zaio; bidegurutze honek Aia eta Zarautza iristen ziren ibai-buruetarako norabidea zuen. Aisa asko ikus daitezke eliz-tontoretik inguruko ibideak. Berantagokoak dira zubiak. Egurrezkoak lehenik, harrizkoak gerora. Zubialdekoak (11-15) auzo-bide txiki bat ere bideratu du. Txiribogakoa (11-3) berriagoa da, erdi-puntuko sei arkutakoa.

Hiriguneaz gain, udalerria Zubialde, Etxabe eta San Kristobal auzoek osatzen dute.

Hiribilduaren historia oso garaiztik Zestoia eta Zumaiako hiribilduen artean izandako auziei loturik ageri da, lur-jabegotza dela eta. Auzi honen inguruan ebatzitako lehen epaia San Lorentzo basilizan (10-24) burutu zen, 1338. urtean. Honen ondorioz, Aizarnazabal Zumaiako barrutikoa izatera aldatzen da; hau ordea, ez da auzi-epaiarekin bat etorriko eta Zestoari batzeko etengabeko saiakerak egingo ditu.

Hernanin 1470ean burutu ziren Biltzar Nagusietan 1388an emandako auzi-epaia berretsi zen, Aizarnazabalek bere burua administratzeko borrokari eutsi bazion ere.

Konstituzioaldian Aizarnazabal eta Oikiak bat egingo dute Udal bilakatu ahal izateko 1813ko uztailaren 13ko Dekretuaren babespean; honen arabera 700 biztanletik gorako guneek hiribildu titulua eska zezaketen eta berezko udala sortu. Berehala aurrejarri zitzaion Zumaia 700 biztanle zituenik gezurra zela esanaz. Egoera honen aurrean bi herriek Ibañarrieta auzora joko dute baina ez dute beren helburua erdietsiko.

Aizarnazabalek ez du hiribildu titulua 1861erabitaratean eskuratu.



San Kristobal basiliza.



Herrikojaiak.

HIRIGUNEA

Aizarnazabalgo gunea elizak (11-16), enparantzak, udaletxeak (11-17) eta tradiziozko hainbat eraikuntzak osatzen dute.

■ San Miguel Parroki-Elizak itxura sendoa eta ia batera zulorik gabeko hormak ditu. XVI. mendeko eraikuntza dirudi. Nabe bakarrekoa da, hiru zati eta bi alboko kaperara ditu. Absidea lauangeluarra da. Gangek ertzeko forma dute fajoi-arkuekin. Alboetako kaperak erdi-kainoiko gangek estaltzen dituzte. Portada ere xumea da, erdi puntuko arkukoa.

Dorrea XVII. mendean eraiki zen bertako lanetan Zestoako hiritar batek esku-hartuaz.

Barren aldean, horman sartuta, ertaro itxurako hilarria dago. Gainaldean San



San Miguel eliza.



Etxabe baserria.

Pedroren enblema du eta armarria behekaldean. Guztia lokarri-marra batez inguratu.

■ Udaletxea oso berria da, 1954koa, nahiz eta eraikuntza hauek izan ohi duten tradiziozko itxurari eusten dion.

UDALERRIA

► Zubialde

Urola ibaiaren gaineko zubia zeharkatzen duen errepidearen albo banatan biltzen da auzoa (11-15). Bi zulo eta erdian zubibularra du, XVI. mendeko lehenengo harrizko zubien antzera.

► Etxabe

Ibaiaren iber txiki batean lekutzen da multzo hau. Etxabe (11-8) eta Etxabe goikoa (11-7) baserriek, auzoari izena eman ezezik, arkitektura adierarik nagusia ere osatzen dute. Lehenak landa jauregi izaera du. Armarria du eta oinetxea izanik, iadanik XVI. mendeko agiritan azaltzen da. Etxabe goikoak berriz, antzintasun handiagoko ezauzgarriak ditu: arku zorrotzeko ateak, turutantzeko leihoak e.a. Zalantzarik gabe Aizarnazabalgo itzalik handieneko oinetxea da.

Bere jabegotzen artean errotak eta burdinolak aitatzen dira.

Baltasar Etxabe, Mexikoko pintura-eskolaren sortzailatzat hartu izan dena, XVI. mende erdialdera jaio zen etxe honetan, bere artista-lanean Juan de Juanes ezizenez ezagutzen zena. Isabel Ibiarekin ezkondua zegoen, hau ere margolari aparta, Zumaiarra gaitzizenez ezagutua. Biak Mexikon bizi izan ziren XVI. mende amaiera aldera.

► San Kristobal

Baseliza da gune honen elementu ezagugarria (11-13). Portada zorrotza da eta ondoan ur bedeinkatu-harria dago San Kristobali buruzko erretaula bezalaxe, XVI. mendekoa.

Antzin-etxeen artean, San Kristobal (11-12), Erlanta goikoa (11-9) eta Enbil (11-11) gailentzen dira, azken hau Aizarnazabalgo etxerik zaharrenetakoa dela esan ohi da herrian.

Atristain baserria (11-10) Aizarnazabalgo beste oinetxe nabarmen bat da. XVII. mende amaieran aurreko eraikuntzaren etxalekuari eutsiaz berreraikia izan zen. Armarria du eta hiru arkutako atearte polita.



baserria.



Atristain baserria.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiak 1992. urtean argitaratutako
GIPUZKOAKO GIDALIBURU HISTORIKO MONUMENTALA

